



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2007-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontu Orokorraren, bere Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoen fiskalizazio txosten derrigorrezkoa mamitu du, 2007ko ekitaldiaren gainekoa.

Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute. Txostenak kontularitza eta legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Udalaren finantza egoera aztertzen du.

Legezketasunaren atalean, HKEEk Foru Aldundiaren jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du, txostenean bertan jaso diren hainbat ez-betetze salbuetsita.

Lehenik eta bat Epaitegiak ebazteko dauden hainbat errekurtsio mahairatu ditu, Europako Batzordeak 11/1993 Faren hainbat artikulua ez-legezko izendatzeko erabakiaren ondorioz, Europako Batasuneko Lehen Auzialdiko Epaitegiaren aurrera ekarri zirenak. Berebat, ebazteko dauden beste errekurtsio batzuk ere azaleratu ditu, enpresek Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren aurrean jarritakoak.

Sarrera fiskalei dagokienez, HKEEk kritikatu egin du Finantzen Euskal Kontseiluak finkatutako aparteko ekarpenaren kontzeptuan eta zenbatekoan arrazoitze eza, GFari 9 milioi euroko aparteko diru-sarrerak ekarri zizkiona, beste diputazio batzuekin abian zituen hainbat erreklamazio kitatutzat jotzearen truke. Halaber, Erakunde fiskalizatzaileak adierazi du fiskalizazio txosten hau jaulki den datan Irungo Instrukzioko Epaitegiak ez duela ebatzi zerga sarrerak baliogabetzeko espedienteetan izandako irregulartasunei buruzko salaketa.

Langileen gastuen atalean bereizi da ez direla NUIZari meneratutako lan etekin modura barne hartu 16 zuzendariri ordaindutako zesantiak, ez eta 6 langilek eskuratutako erretiro sariak ere.

Administrazioko kontratazioaren fiskalizazioan salbuespenek azpimarratzen dute aztertutako hainbat kontraturen esleipenean publizitate eta lehia printzipioak ez direla bete eta hainbat kontratu exekutatzeko aldaketa adierazgarriak egin direla, horien



zenbatekoa aintzat hartuz gero, Epaitegiak kontratazio horiek itxuragabetu egiten dituztela irizten diolarik.

Diru-laguntzak emateari dagokionez, HKEEk enpresa batek ondare-erantzukizun kontzeptuan jarritako erreklamazio bat onartu izanaren ondorioz aldundiak egindako ordainketa azpimarratu du, egoera kontsolidatua zegoela eta honenbestez, erreklamazioa egokia ez zela. Diru laguntzen emakidari dagokionez, HKEEk gailendu du Diputatuen Kontseiluak 14 milioi euro egin dituzten 52 diru laguntza zuzenen emakida onetsi duela egoki den publizitatea eta lehia sustatzeko ezintasuna justifikatu gabe; laguntza hauek 27 toki entitateri, 8 enpresari eta irabazi asmorik gabeko 17 entitateri eman zaizkie. Honez gain, atal honen barruan beste hainbat lege-hauste azpimarratu dira, bai beste diru-laguntza zuzen batzuetan, bai publizitate eta lehia bidez emandako diru-laguntzetan ere.

Legezketasunaren gaineko iritzia ondarearen araudia betetzeari buruzko atal batek osatzen du, zeinetan GFaren lursail bat enpresa pribatu batenarekin trukatzeko eragiketa azpimarratzen den, horretarako eskurik ez zuen atalak 2002an adostu zuena eta Diputatuen Kontseiluak 2007an bere gain hartu zuena. Eragiketa honek ez du ez tasaziorik, ez prezio eguneraketarik ere, eta gainera, trukean adostu ez ziren hainbat gastu gain hartu dira. Ondarezko beste bi eragiketetan prozedura negoziatuaren erabilera zalantzan jarri da.

Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEk aldeko iritzia eman du, salbuespen izanik garrantzi txikiko hainbat kontularitzako doiketa eta ibilgetuko hainbat kontu ez xehakatu izana.

Erakundeen administrazioari buruz eman den iritzia aldekoa da, salbuespen izanik IZFE, SA eta Bidegi, SAn kontratazioko unean uneko ez-betetze batzuk eta Etorlur, SAK egindako abalen emakida, horretarako baimendua ez dagoelarik.

Epaitegiak hainbat gomendio luzatu ditu aurrekontu eta kontularitzako hainbat alderdiri dagozkionak, sarrera fiskalei –sarreraren baliogabetze eta zerga zorren ordainketen gerorapenekin loturik-, eta kontratazio eta diru-laguntzei buruzkoak. Sozietate publikoei dagokionez, Epaitegiak azpimarratu du Etorlur, SAK hainbat lursail prezio ezberdinekin eta tasaziorik gabe erosi dituela, 2006ko ekitaldian izenpetutako kontratu bati dagokionez, ekitaldi horretako txostenean aztertu zena.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Amaitzeko, Finantzen Analisiaren atalean azpimarragarria da aurreko ekitaldiarekiko eragiketa arruntek eragindako emaitzaren igoaldia, zorpetzearen bilakaera positiboa eskuratutako emaitza arruntarekiko eta Diruzaintza Geldikin handia eta zorpetze txikia, nagusiki, inbertsio eragiketek duten exekuzio txikiaren ondorio direla.